

# Mendeku egarria

Sonia Villamor

---

Bi giro ezberdinak daude: batean, irratia kokatuko dugu; bestean, hi-lerria. Hilerrikoak lurreen etzanda. Irratikoak zutik, pantaila atzean. Argiztapena zaindu behar dugu. Publikoak, sartzean, irratia soilik ikusiko du. Irratiko soinu pregrabatua ipiniko dugu martxan. «On» botoia sakatu, eta ikuskizuna hasiko da. Irratsaioak. Gazteak bikote-ka jarriko dira programak irudikatzeke.

## 1. ESZENA. IRRATIA

1. irratsaioa. Bi lagun. Magazina (deiak zuzenean jasotzen diren ho-rietako bat).

*Esataria: Egunon guztioi. Berriro ere zuekin, gai interesgarri eta mamitsuei buruz hitz egiteko. Dakizuenez, programa honetan zuzenean hartu ahal duzue parte telefono-zen baki honetara hots eginez: 94777000. Neu, Karmele, zuen iritziak entzuteko irrikitan nago.*

Musika. Iragarkia.

*Enara: Zure txakurra triste dago? Ba hori alda dezakezu: eman «MAFI» jana, eta igarriko duzu aldea, egun osoan saltoka ibiliko da eta!*

*Esataria: Gure gaurko gaia: etxeko animalia. Komeni al da etxeetan animaliak izatea? Osasungarria da? Posible da katuek eta txakurrek elkarrekin bizitzea?*

Deia entzuten da.

*Esataria: Kaixo laguna! Nor zara? Zer kontatu nahi diguzu?*

*Deitzailea: Martina naiz, eta nire bizipenaren berri eman nahi dut.*

*E: Egunon, Martina. Aurrera!*

*M: Egia esan, arazo larria daukat: nire loroa eta nire txakur maitia lagun minak egin dira, eta baztertuta sentitzen naiz.*

*E: Nola da posible?!*

*M: Badakit batzuek ez nautela sinetsiko, baina egia da, egia borobila eta mingarria. Lehen, Fredy txakurrak nirekin baino ez zuen zaunka egiten (zaunka egiten hasten da). Oso ondo ulertzen genuen elkar. Gure harremana zoragarria zen...*

*E: ... Eta zer gertatu zen?*

*M: Zorigaiztoko egun batean, ahizpa Margaritak loro bat oparitu zidan, oso bakarrik nengoelako aitzakiarekin. Loroak Fredy lapurtu dit eta, gainera, ez du neuk esaten diodana errepikatzen. Egoera konpontzen saiatu naiz; leihoa zabalik uzten, ea hegaz alde egiten duen... Baina ez da modurik egon.*

*E: Loroak, batzuetan, ez dira oso azkarrak... Agian lagundu egin beharko zenioke gehiago, beste modu batean...*

*M: Nola?*

- E:* Ba... jaten ez ematen, adibidez. Badakit krudela ema dezakeela, baina tira, zure etxean ez duzu zertan egoera hori jasan.
- M:* Mila esker, Karmele. Ez dakit zer egingo nuken zu barik...

2. irratsaioa. Esatari bi, «kulebroi» bat antzezten. Hasita dago.

- E1:* Zutaz zer pentsatzen dudan ez dut esango, Joe.
- E2:* Hobe horrela, Mikel! Poliziak honen berri izango balu...
- E1:* Ez naiz salatari bat, zer uste duzu?
- E2:* Badakit. Beste une batean, lagunak izango ginateke.
- E1:* Lagunak? Zoratuta ere ez!
- E2:* Ez jarri horrela... Urduri ematen duzu, kide.
- E1:* Ez naiz zure laguna, ezta zure kidea ere, entzun duzu?
- E2:* Ondo da. Nahi duzun bezala...
- E1:* Negozio hau amaitu bezain pronto, zu berriz ez ikustea espero dut.
- E2:* Ez dizut hain errez jarriko, niretzat oso baliagarria zara (Barre maltzurra).
- E1:* (Marmarrear) Ikusiko dugu...

Sintonia.

- E1:* (Ahotsa aldatzen)... Eta hau izan da «Mendeku egarria», 432. atala.
- E2:* Bihar, ordu berdinean. Zuen zain egongo gara.
- E1:* Suspensea eta emozioa Mike eta Joerekin.
- E2:* Ezin duzu galdu!
- E1:* Agur, eta ondo pasa!

Sintonia. Iragarkia.

*Iragartzailea: Emakumeok gizonei eskerrak ematen dizkiegu,  
«AR» lurrina erabiltzeagatik.*

3. irratsaioa. Musika eta koreografia batekin hasten da. Modan da-goien dantza ero bat azaltzen ari dira. Irratsaioa hasita dago.

*E1: Pixka bat zaila dirudit.*  
*E2: Zaila? Benetan? Nire ustez, praktika kontua da, besterik ez.*  
*E1: Eta orain, pausuak gogoratuko ditugu... Hasteko, eskuak zabalik, eta buru gainean ipini behar dira.*  
*E2: Musikaren erritmoa jarraituz, gerria eskumara eta ezkerrera mugitu behar da.*  
*E1: Alde batera eta bestera, melodia sentituz...*  
*E2: ... Eta, azkenik, oinak elkartuta mantenduz, bultzada hartuz, salto txikiak eman behar dira. Erraza, ezta?*  
*E1: Erraza bada, bai, baina sasoiaren egon beharra dago!*  
*E1: Oso nekatuak ikusten dugu.*

Musika eta koreografiarekin jarraitzen dute, gero eta nekatuago. Bat-batean, dena amatatzen da. Irratsaioak egiten egon direnak ate-ratzen dira, denak batera.

Eztabaidatzen hasiko dira, zer gertatu den argitu asmoz.

*Mike: Hau oso arraroa da: bizitza osoan ikusi dudarik gauzarik arraroena.*  
*Joe: Ikusi ez duzuna, hain zuzen.*  
*M: Fredi ez da izan...*  
*E1: Nor da Fredi?*  
*E2: Hobe genuke dantzatzen jarraitzea.*  
*E1: Leher eginda nago.*

«Off» ahotsa entzuten da. Irratiak hitz egiten duela ematen du.

*Off: Zuen denbora amaitu da, gizakien garaia agortua dago.  
Hildakoen txanda da, mundu hau beraien eskuetan dago.  
Has dadila jaia!*

Musika martxoso bat, zonbiak irteteko. Altxatzen hasten dira musikaren erritmoaz, koreografia bat egiten dute. Bitartean, irratian aritu direnak elkartzen doaz, multzo bat osatzen. Izututa daude. Koreografia amaitu, eta oihu bat botatzen dute, denek batera. Ihes egiten dute.

## 2. ESZENA. ZONBIEN MUNDUA

Dantzatu eta gero, zonbiek borobil erdia osatuko dute. Hitz egiten duena publikora hurbiltzen da. Beste guztiak begira ditu.

*Z1: Txakur batek koska egin zidan, kale erdian. Odoletan hasi nintzen, eta inork ez zidan lagundu. Pixkanaka itzaltzen joan nintzen, bakarrik eta mutu, horrenbeste oihukatu eta gero. Triste egon beharko nuke, baina amorratuta nago. Hona hemen gure aukera... MENDEKUA nahi dut!*

*Guztiek: MENDEKUA!!!*

*Z2: Gure txanda heldu da! Zonbion Txanda! Neu, ederrago eta lirainago izateko asmoz, kirofanora joan nintzen, ezpain berri batzuk ipintzera. Medikiak, despistatu, eta burua moztu zidan. Ezbehar hori gainditzeko... MENDEKUA nahi dut!*

*G: Hori da! MENDEKUA!!!*

*Z3: Neure herriko beltzaranena izan nahi nuen. Eguzkitan jarri, eta zazpi egunetan, goiz eta gau, hamakatik mu-*

- gitu barik egon nintzen. Zortzigarren egunean erre kiratsa nabaritu nuen, eta kea sumatu nuen: neu nintzen, sutan! Badakit ez nintzela oso azkarra izan baina...*
- G: *Berdin dio! Mendekua!!! Gizakion erruz ozono-geruza hondatu da eta!!!*
- Z4: *Atso bati bere katu madarikatua zuhaitz batetik jaisten laguntzen saiatu nintzen. Katuek epelako saltoak eman ditzakete; geuk, ordea... Hanka biak hautsita, eta burua mila zatitan geratu zitzaidan. Ordutik, buruko mina daukat egunero.*
- G: *Katu madarikatua! MENDEKUA!!!*
- Z5: *Errepidea gurutzatu nahi nuen. Zeharkaldi luze-luzea zen, semafororik gabea. Zebra-bideak bazeuden. Batera abiatu nintzen. Kotxe asko zegoen. Alde bietara begiratu eta, zeharkatzera nindoanean, txori baten gorotza erori zitzaidan begietara. Mokordoa hain zen potoloa, ezen, pisuaren erruz, oreka galdu bainuen, eta kotxe baten azpian amaitu.*
- G: *Txori alaeanak! MENDEKUA!!!*
- Z6: *Izozkiak itzel gustatzen zitzaizkiadan. Egun batez, izozki-dendara hurbildu, eta nire guratsuen erosi nuen. Amaitzean ikusi nuen sarituta zegoela, eta beste bat hartu nuen. Hura ere sarituta zegoen, eta hurren-goa, eta hurrengo... Guztira, ez dakit zenbat jango nituen! Horretan nengoela, jan eta jan, ez nintzen berehala ohartu izozten ari nintzela, eta, konturatu nintzenerako, berandu zen. Jada ezin nintzen mugitu, jelatuta nengoan oinetatik ile puntaraino!*
- G: *MENDEKUA!*
- Z7: *Mendekua izozkien aurka? Gauzak bere onetik ateratzen ari zaretela iruditzen zait. Nik ez dakit zer gertatu zitzaidan. Egun batez oheratu, eta ez nintzen berriz jaiki. Ez dut oroimenik eta, beraz, ez naiz mendeku-egarri.*

*Gainera, oso pozik nago oraingo bizimodu honekin.  
Bizirik baino biziago gaude zonbiok! Nahi bezala ematen ditugu egunak!*

Pentsakor geratzen dira guztiak.

- Z3: *Arrazoi duzu! Neu ere hilik, bizirik baino hobeto! Nahi dudana egiten dut. Eguna dantzan eta parran-dan ematen dugu, beti txisteka... Gure artean giro izugarria dago! Kezkatzen nauen gauza bakarra zera da: zergatik izutzen da jendea gu ikustean?*
- Z1: *Film gehiegi ikusi dituztelako, eta, horietan, beti jartzen gaituzte txarto.*
- Z2: *Bai, oso itsusi ateratzen gara.*
- Z4: *Orain dugu gauzak aldatzeko aukera. Irratia erabil dezakegu!*
- Z5: *Hori bai hori, ideia ona! Jai erraldoi bat antola dezakegu, elkar ezagutzeko. Gizakiak eta zonbiok...*
- Z6: *Ekin diezaiogun lanari! Eta jakiak prestatu! Izoziak, nire kontu!*

Besteek barre egiten dute.

- Z1: *(Irratira doa eta mikrofono bat hartzen du, deia egiteko).  
Jaun-andreok: amaitu da beldur izateko garaia. Hemendik aurrera, zombion Lege Sakratua inposatuko da...*
- Z2: *... Bai horixe! Alaitasuna eta jaia! Gonbidatuta zaudete guztiak! Zatozte, zatozte, eta mendeku egarria...*
- Z3: *Freskagarriekin aseko dugu!*

Pixkanaka, irratiko esatari guztiak aterako dira. Hasieran astiro, baina erritmoa bizkortzen joango da. Musika, eta denak dantzan.

Amaierako koreografia.

